



## Hau da aste honetako euskararen pilula!

### "reinserción social" euskaraz, nola?

#### Reinserción social, reinserción > gizarteratze

Horrela definitzen du **gizarteratu** Euskaltzaindiaren Hiztegiak:

**gizarteratu**: 1 *da/du* ad. Gizartean txertatu.

#### ADIBIDE BATZUK

- “Servicio de Asistencia a la Ejecución penal y la **Reinserción Social**” > “Zigorrak Betearazteko eta **Gizarteratze**ko Laguntza Zerbitzu”
- “(...) se ofrecen nuevas posibilidades de obtener la libertad a los penados primarios que presentan un pronóstico favorable de **reinserción**” > “(...) askatasuna lortzeko aukera berriak eskaintzen zaizkie lehenengoz zigortuei, **gizarteratze**aren aldeko pronostikoa dutenean”
- “Informe psicológico que incluya informe sobre su evolución y posicionamiento frente al delito, así como evolución sobre su drogodependencia, caso de ser toxicómano y nivel de posible reincidencia y pronóstico de **reinserción social**” > “Txosten psikologikoa. Txosten horretan azalduko da delituaren aurrean izandako bilakaera eta jarrera; droga-mendekotasunari buruzko bilakaera, toxikomanoa bada; eta, orobat, berrerortzeko arrisku posiblea eta **gizarteratze**ari buruzko pronostikoa”

#### ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)